

Joko berri bat asma bageneza...

Hiztegia

tolestu / plegatu

margotu

itsatsi / kolatu

Azalpena

- Hasieran irakasleak honelako galdea egin dezake : "Beste joko bat asma bageneza ..."
- Joko berriaren asmatzeko, ikasleak bakarka edo taldeka emanen dira.
- Ideia bat badutelarik, argi agertuko dute. Beharrezkoak zaizkien tresneria eta materiala eskuetan emanen zaizkie entseguen egiteko.
- Asmatu duten jokoak lagunen artean probatuko dute. Joko berri bakoitza denen artean komentatua eta hobetua izan daiteke.
- Muntaia batzuk aski argi direnean, idatziko dira notizia baten gisa, urratsak ordenan ezarriz.

Abiapuntua

Sorginen karta jokoak muntatu dugu. Orain beste bat (behar bada askoz sinpleagoa !) asmatu nahi dugu. Nola egin ?

Hipotesia batzuk

Haurrek norabide batzuk haztatzen dituzte. Orri eta kartoi puska batzuen bidez zenbaki, letra eta marrazkiak baliatuz konbinazioak asma ditzakete eta berdin joko bat planta.

Egiaztatuko duen jarduera

Muntaia bat asmatzen eta gauzatzen dute. Ondotik beren lana egiaztatzen dute jokoak lagun batzuekin eginez.

Denen buru zer ?

Muntaiaren berri kaieran notatzen dute edo berdin jokoari doakion notiziaren idaztera entseatzeko dira.